

CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT eta CNTren prentsa oharra

Gaur, urriak 27, Bizkaiko metaleko langileek beste indar-erakustaldi bat eman dute. Laugarren greba izan da sektorean, eta beste greba handi bat izan da. Jarraipena % 85ekoa izan da. Durangaldea erabat geldirik egon da, Artech, Tecuni, Bombardier, Vicinay, Estampaciones Bizkaia, Grupo Cie eta DYF enpresek ez dute ezer ekoitzi, eta Petronorren azpikontratak ere geldirik egon dira, adibide batzuk aipatzearen.

Gaurkoarekin, 4 greba egun egin ditugu, eta lehenik eta behin gogoratu nahi dugu zergatik gauden greban, asko, modu interesatuan, hori ezkututzen saiatzen baitira.

Astearte honetan, urriaren 25ean, negoziazio mahaiaren bilera izan genuen berriro. 15. bilera hau baino lehen, FVEMeri jakinarazi genion atzerapausoak mahai gainetik kendu behar zituela eta soldata igoeren kapituluan erosteko ahalmena bermatu behar zuela. Negoziazioa desblokeatzeko asmoz, mugimenduak egin genituen sindikatuen plataforman.

Bada patronalak, 15 bilera egin ondoren, hauxe eskaintzen die sektoreko langileei:

- Metaleko langileen erosteko ahalmena bermatzen ez duten soldata igoerak. Hori guztia, patronalaren datuen arabera, sektoreko enpresen % 80 baino gehiago irabaziak mantentzea edo handitzea espero dutenean.
- Soldata igoera nahiko ez izateaz gain, patronalak neurri atzerakoiak ezarri nahi ditu, hala nola:
 - Malgutasun orduak haunditzea.
 - Gutxieneko bermea mugatzea, hau da, soldata errealean igoerak mugatzea.
 - Lan istripuagatiko eta lanbide gaixotasunagatiko bajen osagarria baldintzatzea eta okertzea.

Horren aurrean, irakurketa argia da, FVEMek pobreago, prekarioago eta sumisoago nahi gaitu.

Hori dela eta, gaur berriro atera gara grebara. Beste behin ere arrakasta izan duen greba. Zailtasun guztien gainetik, enpresarien presioaren gainetik, patronalaren piketeen indarkeriaren gainetik, inposatu nahi izan duten argazkiaren gainetik, sektoreko langileek duintasuna, konpromisoa eta borrokarako prestutasun miresgarria erakutsi dute. Beste behin.

Gaur ez ditugu ahaztu nahi Eusko Jaurlaritz, Urkullu lehendakaria eta Rementeria diputatua. Metaleko langileok lan eta bizitza baldintza duinen alde borrokatzen garen bitartean, haiek, egun batean bai eta bestean ere bai, argazkiak ateratzen dituzte patronalarekin batera, patronalaren lana goraiatzen. Azken argazkiak joan den astekoak dira, Tamara Yague eta Lander Artech FVEMeko presidente eta presidenteordearekin, Bizkaiko metalaren hitzarmenaren negoziazioaren blokeoaren errudun nagusietako bi. Beste behin ere, patronalaren alde egitea erabaki dute, pobreago, prekarioago eta sumisoago nahi gaituen patronalaren alde. Beraz, galdetu nahi dugu: Zer eskaintzen die Eusko Jaurlaritzak Bizkaiko metalgintzako langileei? Ertzaintza mobilizazioei aurre egitera bidali?

Borroka ez da amaitu, beste bi greba egun geratzen zaizkigu eta hemendik mezu argi bat bidaltzen diogu FVEMi, ez da normaltasunik egongo Bizkaiko metalean hitzarmen duin bat sinatu arte. Fabrikak husten jarraituko dute, ekoizpena gelditzen jarraituko da eta kaleak betetzen jarraituko dugu. Borroka hau irabazteko hasi dugu eta irabazi egingo dugu.

Euskal Herrian, 2022ko urriaren 27an